



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2021EKO MARTXOAREN 9AN  
GOIZEKO 09:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Beñat Larrañaga Urdanpilleta.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ez dira bertaratu:** Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2021/02/23.**

Batzarkideek 2021eko otsailaren 23ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- PUNTAPAX KALEA 3 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2019-0265

PUNTAPAX KALEA 3 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen ANGEL AINZIBURU ODRIOZOLA jaunak, Puntapax kalea 3 etxean jarritako igogiluaren lehen erabilera baimena eskatu du.

**AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko urriaren 29an, Puntapax kale 3 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea erabaki zuen.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 63.205,04 €
<b>Obra amaierako ziurtagiria:</b>	<b>Guztira: 59.236,09 €</b>
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 595,90 €
	Fidantza (%120): 715,08 €



Usurbilgo Udala

### LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, PUNTAPAX KALEA 3 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen ANGEL AINZIBURU ODRIOZOLA jaunak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du. Hondakinen kudeaketa amaierako txostena aurkeztu da.

### TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egituren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du. Hala ere, hondakinen kudeaketarako fidantzarik ez zela jarri ikusi da.

Gauzak horrela, txosten teknikoak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** Puntapax kalea 3 etxean jarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari, zergen kitapena egin dezan.

### **3.- PUNTAPAX KALEA 9 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2019-0264

PUNTAPAX KALEA 9 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen ANGEL AINZIBURU ODRIOZOLA jaunak, Puntapax kalea 9 etxean jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du.

### AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko urriaren 29an, Puntapax kale 3 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea erabaki zuen.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 53.770,90 €
<b>Obra amaierako ziurtagiria:</b>	<b>Guztira: 59.236,09 €</b>
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)



Usurbilgo Udala

Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 595,90 €
	Fidantza (%120): 715,08 €

### LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, PUNTAPAX KALEA 9 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen ANGEL AINZIBURU ODRIOZOLA jaunak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du. Hondakinen kudeaketa amaierako txostena aurkeztu da.

### TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du. Hala ere, hondakinen kudeaketarako fidantzarik ez zela jarri ikusi da.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** Puntapax kalea 9 etxean jarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari, zergen kitapena egin dezan.

### **4.- ZUBIAURRENEA KALEA 1, 1.A ETXEBIZITZA BITAN BEREIZTUTA, EGOKITUTAKO BI ETXEBIZITZEI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2020-0129

JAVIER GONZALEZ COSSIO jaunak, obra amaierako ziurtagiria aurkeztearekin batera, etxebizitza berrien lehen erabilera baimena eskatu du.

### AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko ekainaren 9an, zera erabaki zuen: JAVIER GONZALEZ COSSIO jaunari Zubiaurrenea kalea 1, 1.A etxebizitza bitan bereizteko obretarako udal baimena ematea.

## **OBRAREN EZAUGARRIAK**



Usurbilgo Udala

Exekuzio materialeko aurrekontua:	50.572,06 €
<b>Obra amaierako ziurtagiria:</b>	<b>50.572,03 €</b>
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 157,56 €
	Fidantza (%120): 189,07 €

2020ko ekainaren 3an, Alkateak, 406/2020 dekretuaren bidez zera erabaki zuen: JAVIER GONZALEZ COSSIO jaunari, Zubiaurrenea kalea 1, 1.A etxebizitza bitan bereizteko udal baimena ematea.

#### LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, interesatuak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, Zubiaurrenea kalea 1, 1.A etxebizitza bitan bereiztuta, egokitutako bi etxebizitzaren lehen erabilera baimena eskatu du.

#### TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2021eko martxoaren 3an, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio.


Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** Zubiaurrenea kalea 1, 1.A etxebizitza bitan bereiztuta, egokitutako bi etxebizitzetara lehen erabilera baimena ematea (*Zubiaurrenea kalea 001-01-01-A1 eta Zubiaurrenea kalea 001-01-01-C1*) honako baldintzarekin:

- Obra berriko aitortza aurkeztu beharko da, etxearen banaketa horizontalaren aitortzarekin batera.
- Etxebizitza berriri udal erroldan alta eman aurretik, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan alta eman beharko zaio U-4 inprimakiaren bitartez. Beraz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan alta eman aurretik inork ezingo du etxebizitzaren erroldatu.

**BIGARRENA:** Erabakia jakinaraztea interesatuari, udal erroldako arduradunari eta kontuhartzaileari ematea.



Usurbilgo Udala

## 5.- 2020KO NORGEHIAGOKA ERREGIMENEOAK EZ DIREN KIROL EGITASMOAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZEN ZURIKETA.

### Ikusirik

2020ko kirol arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntza oinarriak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, urtarrilak 07an argitaratu ziren eskaerak aurkezteko urriaren 30era arteko epea emanez.

3 eskaera aurkeztu ziren.

Teknikariaren txostena kontutan hartuta, Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak ebazpen proposamena egin zuen eta alegazioak aurkezteko epea zabaldu zen. Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

### Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO 2008/07/01)
- Usurbilgo Udalak norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko diru-laguntza oinarriak (GAO 2020/01/07)
- Usurbilgo udaleko 2020-2022ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** 2020ko Norghegiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza kopuru hauek xedatzea eta ordaintzea.

1.- Laguntza berezien laguntzetarako:

Ez da eskaerarik aurkeztu.

2.- Taldeetako prestakuntza teknikoen laguntzetarako:

Ez da eskaerarik aurkeztu.

3.- Kiroletako oinarrizko osasun miaketetarako:

	€
Usurbil FT	744,75 €
Usurbil KE	2.275,00 €
Baxurde txiki	510,00 €



Usurbilgo Udala

**Bigarrena:** Gastua aurrekontu-partida hauen kargura joango dira:

1.4300.481.341.00.08 Kirol mediku azterketa (A 10-2020)

**Hirugarrena:** Interesatuei akordioen berri ematea.

**Laugarrena:** Honen berri kontu-hartzaileari ematea.

## **6.- 2021ERAKO NORGEHIAGOKA ERREGIMENeko DIRULAGUNTZEN DEIALDI BATERATUAREN OINARRI OROKORRAK ETA HAUEN ERANSKINAK ONARTZEA.**

Esp.zk.: ID.23/2021-0036

### **Ikusirik**

Usurbilgo Udalak, elkarte, erakunde eta norbanakoek udalerrian hainbat alorretan egiten dituzten ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko duten oinarri orokorrak atera nahi dituela.

Oinarri hauen helburua dela Usurbilgo Udalaren norgehiagoka erregimeneko dirulaguntzen oinarri erregulatzailerak ezartzea 2021. urtean egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri.

### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2020-2022.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**Lehenengoa:** 2021ean norgehiagoka erregimenean dirulaguntzak emateko programa desberdinen deialdi bateratuaren oinarri orokorrak onartzea.

**Bigarrena:** Oinarri orokorren eranskin moduan doazen oinarri espezifikoak onartzea:

1. eranskina. Zinpeko Aitorpena.
2. eranskina. Gizarte Ongizatea saila.
  - 2.1. Gizarte Zerbitzuetako egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.
3. eranskina. Ingurumen saila.
  - 3.1. Ingurumen arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.
4. eranskina. Kirol saila.
  - 4.1. Kirol elkarten ohiko kirol egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.
  - 4.2. Emakumeen eta gizonen berdintasun kirol-jardueretako planak burutzeko dirulaguntzak.



Usurbilgo Udala

- 4.3. Kirol egokitutako jarduerak burutzeko dirulaguntzak.
- 4.4. Kirol elkarteenak ez diren kirol jarduerak burutzeko dirulaguntzak.
- 5. eranskina. Kultura saila.
  - 5.1. Kultur arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.
- 6. eranskina. Nekazaritza eta Abeltzaintza saila.
  - 6.1. Nekazaritza eta abeltzaintza arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.

**Hirugarrena:** Eranskin bakoitzari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa aurrekontu-partida hauen kargura joango da:

- 2.1. eranskina: 1.8000.481.231.03.02.2021 (12.000 euro)
- 3.1. eranskina: 1.6100.480.172.00.01.2021 (5.000 euro)
- 4.1. eranskina: 1.4300.481.341.00.01.2021 (45.000 euro)
- 4.2. eranskina: 1.4300.481.341.00.02.2021 (5.000 euro)
- 4.3. eranskina: 1.4300.481.341.00.06.2021 (3.000 euro)
- 4.4. eranskina: 1.4300.481.341.00.07.2021 (1.000 euro)
- 5.1. eranskina: 1.4000.481.334.00.03.2021 (65.000 euro)
- 6.1. eranskina: 1.6200.481.412.00.03.2021 (15.000 euro)

**Laugarrena:** Oinarriei buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian argitaratzea.

**Bosgarrena:** Erabaki honen berri kontuhartzaileari ematea.

## **7.- DESERROTZE ETA BAZTERTZE SOZIALEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN SENIDEEI ERANTZUTEN DIRULAGUNTZEN OINARRIAK ONARTZEA.**

Esp. Zkia.: GZ.42/2021-0027

### **Ikusirik**

Usurbilgo Udalak, erabaki judizial bat betetzearen ondorioz (barneratzea zentro psikiatriko batean, kartzelan, drogamenpekotasun zentro batean) herritik kanpo egon eta beraien ingurune familiarra etorri ezin diren pertsonen senideek egiten dituzten joan-etorrien gastuak diruz lagundu nahi ditu.

Horregatik hain zuzen ere, Usurbilgo Udalak aurrekontu partida bat ezarri du aipaturiko egoeran dauden pertsonen senideei joan-etorri gastuak ordaintzeko dirulaguntzak emateko.

### **Eta kontutan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena
- Diru laguntzak arautzen dituen ordenantza (GAO, 2008/07/01)
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022 Diru-Laguntzen Plan Estrategikoa



Usurbilgo Udala

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideek egiten dituzten joan-etorri bidaien gastuak diruz laguntzeko oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eransten zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Dirulaguntzaren zenbatekoa aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.8000.480.231.03.03 (Dirulaguntza irekiak: Deserrotze-baztertze)

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Hogei egun balioduneko epea ematea interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**Bosgarrena:** Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.

## 8.- IGOGAILUAK INSTALATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRIAK ONARTZEA.

Esp. zkia.: GZ.42/2021-0045

### Ikusirik

Usurbilgo Udalak, herrian bi solairu edo gehiago izan eta nagusiki etxebizitzarako erabiltzen diren eraikinetan igogailuaren instalazioa bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu, 2020. urtean zehar amaitutako instalazio jarduerak diruz laguntzeko. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. Kapitulua I. Atalak ezartzen duena jarraiki.

### Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Herrian bi solairu edo gehiago izan eta nagusiki etxebizitzarako erabiltzen diren eraikinetan igogailua instalatzeko diru-laguntzen oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gairidituko ondorengo partidaren azaltzen den diru izendapena: 1.8000.780.231.03.01. Dirulaguntza irekiak: igogailuak instalatzeko.





Usurbilgo Udala

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Hogei egun balioduneko epea ematea interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**Bosgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

## **9.- DESGAITASUNA EDOTA MENDEKOTASUNA DUTEN ADIN TXIKIKOEN OSASUN EGOERA HOBETZEKO TRATAMENDUETARAKO DIRULAGUNTZEN OINARRIAK ONARTZEA.**

Esp. Zkia.: GZ.42/2021-0081

### **Ikusirik**

Usurbilgo Udalak, mendekotasun edota desgaitasuna duten adin txikikoen osasun egoera eta garapena hobetzeko egindako tratamenduen gastuak diruz lagundu nahi ditu.

Horregatik hain zuzen ere, Usurbilgo Udalak aurrekontu partida bat ezarri du aipaturiko egoeran dauden pertsonen dirulaguntzak emateko.

### **Eta kontutan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen
- Diru laguntzak arautzen dituen ordenantza (GAO, 2008/07/01)
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022 Diru-Laguntzen Plan Estrategikoa

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:


## **ERABAKIA**

**Lehenengoa:** Mendekotasun edota desgaitasuna duten adin txikikoen osasun egoera eta garapena hobetzeko egindako tratamenduen gastuak diruz laguntzeko oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eransten zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Dirulaguntzaren zenbatekoa aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.8000.480.231.03.05 (Dirulaguntza irekiak: Adin txikikoen tratamenduak)

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Hogei egun balioduneko epea ematea interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.



Usurbilgo Udala

**Bosgarrena:** Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.

## **10.- 2021ERAKO HASIZ HAZI BEKAREN OINARRIAK ONARTZEA.**

Esp.zk.: HE.06/2021-0031

### **Ikusirik**

Usurbilgo Udalak, ekintzaileei laguntzeko, Kabiene elkarteak duen elkarlan gunean egonaldia eta erabilera ordaintzeko bideratuko du 2021eko Hasiz Hazi diruLaguntza.

Beka hau Kabiene eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzan oinarritzen da. Ekintzaileari, urtebeteko egonaldia diruz ordainduko zaio Kabiene elkarteak duen elkarlan gunean, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izan dezaten.

Beterri -ekinean zerbitzutik tutorizazio bat ere emango da, eta enpresa abian jartzea eta finkatzearekin lotutako laguntzak ere eskainiko zaizkio, horrela badagokio

Oinarri hauen helburua da, jarduera proiektu bat duen ekintzaileari kabiene elkarteak duen elkarlan gunearen egonaldi eta erabilera diruz ordaintzea. Elkarlan gune hau, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izaango da. Diru-laguntzen onuradunek bertan lanean ari diren kiden esperientziatik ikasi ahal izango dute eta harreman sare indartuago batekin ekin ahal izango diote lanari.

Jarduera proiektuarekin hasi berriak, Beterri-Buruntza ekinean, enpresak sortzen laguntzeko aholkularitza zerbitzuaz baliatu ahal izango dira. Ideia batetik abiatu eta proiektu bat garatzerakoan, enpresaren bideragarritasun plana prestatzerakoan eta abian jartzekoan (finantzaketa, lege-irizpideak, diru-laguntzak) laguntza eskuratu ahal izango dute.

Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza III kapituluaren I. Atalak ezartzen duenari jarraiki.

### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **E R A B A K I A**

**Lehenengoa:** 2021rako Hasiz Hazi bekaren oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eransten zaizkiolarik.



Usurbilgo Udala

**Bigarrena:** Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da 1.5000.481.241.00.03 eta diru-laguntzarako 2.178,00 € ezartzen dira.

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2021eko irailaren 30 arte.

**Bostgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

## **11.- USURBILEN HUTSIK DAGOEN MERKATARITZA LOKAL BATEAN JARDUERA EKONOMIKO BERRI BAT IPINI NAHI DUTEN EKINTZAILEENTZAT 2021EKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.**

Esp.zk.: HE.06/2021-0032

### **Ikusirik**

Usurbilgo Udalak, 2021ean Usurbilen hutsik dauden merkataritza lokaletan jarduera ekonomiko berri bat abian jarri nahi duten ekintzaileei laguntzeko bi diru-laguntza lerro arautu ditu:

- a) Enpresa ekimenak abieraztearen hasierako gastuei aurre egiteko
- b) Jarduera ekonomiko berri bat hutsik dagoen merkataritza lokal batean irekitzeko, lokalaren alokairu edo erosketa gastuak ordaintzeko laguntza.

Oinarri hauen helburua da Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen oinarri erregulatzaileak ezartzea, norgehiagoka erregimenean, 2021. urtean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen edonorrentzat, pertsona fisiko nahiz juridikoa, ekintzaile interesatuaren bizilekua edozein izanda ere, Usurbil edo beste udalerrri bat. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III kapituluaren I. Atalak ezartzen duenari jarraiki.

### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza. (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**Lehenengoa:** 2021ean Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera



Usurbilgo Udala

ekonomiko berri bat ipini nahi duen ekintzailearentzat diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Diru-laguntza aurrekontu-partida honen kargura joango da 1.5000.481.241.00.02, 23.000 € ezartzen direlarik.

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Eskerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2021eko irailaren 30 arte. Ebazpenak bi epetan emango dira: lehenengoa, 2021eko apirilaren 30 arte aurkeztu dituzten eskariena, eta bigarrena, 2021eko irailaren 30 arte aurkeztu dituzten eskariena.

**Bostgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

## 12.- USURBILGO UDALERRIAN MERKATU LIBREKO ETXEBIZITZAK ALOKAIKURAN HARTZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRIAK ONARTZEA.

Esp. Zenbakia: HZ.06 / 2021 - 0070

Usurbilgo Udalak, ohiko bizilekua den etxebizitzaren alokairuren zati bat ordaintzen laguntzeko 2021. urteko diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak prestatu ditu.

Diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01) eta Usurbilgo Udaleko 2020-2022 Diru-Laguntzen Plan Estrategikoa kontutan izanik eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorrean ezarritakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### ERABAKIA


**Lehendabizi:** Proposamen honi erantsirik doazen Usurbilgo udalerrian etxebizitzak alokairuan hartzeko 2021 diru-laguntzen oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidaren azaltzen den diru izendapena: 1.6000.481.151.00.01.2021.

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Hogei laneguneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**Bostgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari ematea.



Usurbilgo Udala

### **13.- 2021EAN NORGEHIAGOKA ERREGIMENEOAK EZ DIREN KIROL EGITASMOAK GARATZEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.**

#### **Ikusirik**

Usurbilgo Udalak, kirol elkarteek, bestelako kirol erakundeek eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten kirol ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2020 urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2021 urtean kirol egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri dirulaguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

#### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **E R A B A K I A**

**Lehenengoa:** 2021ean norgehiagoka erregimenekoak ez diren Kirol egitasmoak garatzeko dirulaguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidaren azaltzen diren diru izendapenak:

143	00	481	341	00	03	Laguntza bereziak	5.400 €
143	00	481	341	00	04	Kirol teknikoen prestakuntza	1.000 €
43	00	481	341	00	08	Kirol mediku azterketa	4.000 €
443	00	481	341	00	10	Eskola Kirolerako laguntzak	5.000 €

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udalaren web orrian eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Hogeita egun balioduneko epea ematea interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**Bostgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:15etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**